


Iñigo Floristan zuzendaria kobazulo bateko sarreran, filmaketa lanetako une batean. Etxe hori eraberritu gabe dago.
Iñigo FLORISTAN



NIRE KOBAZULO MAITEA

Arguedasko kobazulo-etxeak faltan botatzen dituztenen testigantzak bilduz

 **GIZARTEA** / Nagore Belastegi Martin

Iñigo Floristan zinema zuzendaria Nafarroako Arguedas herrikoa da. Bardeako paisaian ezkutatzen diren kobazuloak ditu orain aztergai. Aitona, herriko beste pertsona ugari bezala, kobazulo batean bizi zen. Duela 50 urte, eskuz arrokan egindako zuloak utzi eta pisu berri batzuetara eraman zituzten, indarrez.

Peter Vetsch arkitekto suitzarrak ospea irabazi zuen kobazuloak diren etxeak eraikitzeagatik, eta eraikuntza mota horretan aitzindaria dela esaten da. Dudarik gabe, baina, bere ideia aitzinean gizakien babesleku ziren leitzeetatik ateratu, kobazuloetan tenpera-

tura oso onak mantentzen baitira urte osoan zehar, eta, beraz, bizitzeko modu ekologiko eta eroso eskaintzen baitute. Baina ez dugu hain atzera joan behar Vetsch kobazuloak etxe bilakatu zituen lehen gizaki modernoa ez zela izan frogatzeko. Izan ere, gizakiak inoiz ez du galdu haitzuloekin duen harremana, eta han-hemenka oraindik aurki di-

tzakegu arkitekto izan gabe harkaitzetan zuloak egin eta bertan bizi diren pertsonak. Gurean dugu adibide oso esanguratsu bat, Arguedas Nafarroako herrian. Herria babesten duen paretazarrean ikusten diren kobazuloek turistak erakartzen dituzte egun Arguedasen, bertakoek nostalgiaz begiratzen dituzten bitartean. Jada ez dira bertan bi-

zi, orain bizileku arruntak dituzte, baina horrek ez du esan nahi euren kobazuloak ez dituztenik maite, herriaren historiaren parte baitira. Are gehiago, oraindik bizirik dauden herritar askoren lehenengo etxebizitzak izan ziren horiek. XIX. mendearen erdialdean Arguedasko biztanleak Bardeako lurrak laborantzarako lantzen hasi ziren, eta, horrekin batera, gero eta jende gehiago pilatzen hasi zen herrian. Horietako asko txiroak ziren eta ez ziren gai etxeetako alokairuak ordaintzeko. Gainera, familia askok seme-alaba ugari zituzten eta etxeak ez ziren handiak, beraz, askatasun gehiago izateko nahia ere loratzen hasi zitzairen. Hala, “La Peña” izenez ezagututako harkaitz erraldoiari begira jarri eta bertan etxeak eraikitze-ko aukera ikusi zuten. Duela 300-400 urteko zuloak zeuden bertan, mairuek biltegi moduan erabiltzen zituztenak. Udaletxeari baimena eskatzea nahikoa zen bertan bizitzeko. Ez zuten inolako zergarik ordaintzen eta seme-alabek heredatu egiten zituzten etxeak. Pixkanaka moldatzen zuten harkaitza